



2002/05/31ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko apirila

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK %0,3 HAZI ZIREN 2002KO APIRILEAN

Urte arteko hazkunde-tasa (2002ko apirila, 2001eko apirilaren aldean) %1,7koa izan zen

2002ko apirilean, Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 hazi zen Euskal AEn, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko apirila, 2001eko apirilaren aldean) begiratuz gero, %1,7koa izan da kostuen goratzea. Eta, aurreko abenduaren aldean, %2,5ekoa izan da lehenengo lau hilabeteetako tasaren goratzea.

Urte arteko aldakuntza-tasak 1994-2002



(*) Gehkuntza eskainia apirileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Lehengaien kostuen gehikuntzak (%0,4) apirilean indize orokorrak izan duen ibilbidea markatu du. Izan ere, indizearen beste osagaiak (lan-eskuaren kostuak) ez du aldakuntzarik izan hilabetezko aldi horretan. Hala ere, urte arteko aldiak, lan-eskuaren kostuak %3,5eko igoera izan dute; lehengaien kostuek, berriz, %0,5ekoa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera desberdina izan dute apirilean: %0,4 gehitu dira lehenaren kostuak, eta %0,7 bigarrenarenak. Aldeak, era berean, urte arteko bilakaeran gertatu dira, zeren bi azpisektore horietako lehengaien kostuek, apirilean, %0,4ko tasa lortu baitute *eraikinak* atalean eta %0,8koa *obra zibila* atalean, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko apirilean, hauek izan dituzte gorakadarik handienak prezioetan: *petroliotik eratorriak* (%4,1), *plastikozko hoditeria*. *Isolatzaille termikoak* (%2,0), *leherkariak eta gasak* (%1,7) eta *metalezko hoditeria* (%1,6), besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenagoak ageri dira kontsumitutako produktuen artean: *pinturak eta bernizak* (%6,4), *zementu artifiziala* (%5,5), *laneko arropak* (%4,7), *makineria erabilirako osagarriak* (%4,2), *eskuzko lanabesak* (%3,4), besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA			2002KO APIRILA		
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	118,8	0,3	1,7	2,5	
ERAIKINAK	119,1	0,2	1,7	2,2	
OBRA ZIBILA	117,9	0,4	1,9	3,0	
LEHENGAIEN KOSTUA	113,2	0,4	0,5	1,7	
ERAIKINAK	113,7	0,4	0,4	1,4	
OBRA ZIBILA	111,9	0,7	0,8	2,7	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	127,9	0,0	3,5	3,5	

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.: 945 017 505. Faxa: 945 017 501. Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--